



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

ELGETAKO "ESPALOIA KAFE ANTZOKIA"-REN KUDEAKETA ETA USTIAPENERAKO BALDINTZA OROKORREN ORRIAK. ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- Kontratuaren xedea hau da: ESPALOIA KAFE ANTZOKIA kudeatzen dituen bitartean ustiatzailearen jarduerak bete behar dituen arau, jokabide eta estiloa zehaztea. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Maala kalan kokatua dagoen kulturgune hau erabilera anitzetarako areto edo gune batek osatua dago, antzerki eta gainerako kultur jardueretarako eszenatokiarekin, eta jarduera horien osagarri diren instalazioekin. Baita, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroaren erakusketa gune finkoak ere.

Bokazio publiko nabarmena duen eraikina izanik, herritarren erabiltzea du helburu nagusizat.

1.2.- Kontratua osatzen duten agiriak honako hauek dira:

- a) Baldintza orokorren orri hauek, bere eranskin eta inbentarioarekin. Inbentarioa soilik emango zaio prozeduran parte hartzea interesa idatziz erakusten dutenei.
- b) Lizitatzailak aurkeztutako agiriak eta eskaintza teknikoa.
- c) Kontratua.

Agiri guzti horiek sinatu beharko ditu esleipendunak, ados dagoenaren seinale.

1.3.- Ustiatzeko araubidea.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Esleipendunak ESPALDIA KAFE ANTZOKIA gunearen instalazioak ustiatzerakoan kontratu izaerako agerietan ezarritako baldintzak zehatz-mehatz bete beharko ditu.

Bere kontura izango dira hura zuzen ustiatzeko egingo dituen gastuak.

Esleipendunak ez du kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango ustiapenean sortutako matxura, galera edo kalteengatik, ez eta ustiapena iraungitzeagatik ere horren indarraldia eta ondorengo luzapenena bete delako, edota indarrean den kontratua bertan behera utzi delako ondorengo baldintzetan oinarrituta, edota Toki Administrazioen Kontratuak arautzen dituzten araudietan kontratuak eteteko aurreikusita dauden arrazoietatik edozeinetan oinarrituta:

- Epemuga baino lehen esleipena indarrik gabe uzteko udal erabakia, ondoren sorturako interes publikoagatik.
- Esleipendunak uztea.
- Baldintza-orri hauen arabera indarrean izan beharreko poliza ez izatea (Erantzukizun Zibileko Poliza).

Edozein arrazoi dela bide emakida amaitzen denean, Udalari etorriko zaizkio berriro emakidan emandako instalazio guztiak, inolako karga edo grabamenik gabe. Itzultze hori gertatzen denean, ondasun horiek egoera onean egon beharko dute.

Epealdia amaitu delako, lagatako zerbitzuen kudeaketa ez betetzeagatik, edota esleipendunak uko egin diolako ematen bada amaitutzat emakida, ondasunen itzultzea doan egingo da. Horrelakoetan, gainera, amaiera hori aitortuko duen akordioak erabakiko du behin betiko bermea konfiskatzearen kontua, eta esleipendunak Udal Administrazioari sortutako kalte-galeren kalteordainarena.

1.4.- Instalazioen deskribapena eta ustiapenaren baldintzak.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Ustiapen honen baitan sortzen diren ondasun higikor eta higiezinak, bai eta instalazioen ustiapenak eta kudeaketak berak bete beharreko baldintzak ere, Orri hauetan eta Eranskinean datoz zehaztuak.

1.5.- Antolaketa eta beharrezko baimenak.

Kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita gehienez hilabeteko epean aurkeztu beharko da jarduera proiektua, dagokion lizentzia bideratzeko.

Aldi berean, burutuko den jarduerarentzat nahitaezko diren baimenak eskuratu eta izan beharko ditu kontratuak dirauen bitartean, eta horrela adierazi beharko dio udalari.

2. EPEA

Zerbitzua burutzeko epea hau izango da: urtebeteko lehen epealdi bat jarriko da, eta kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko da epe hori. Urtebeteko lehen epealdi hori emaitzen denean, Udaleko Kultura batzordeak egindako txostenaren ondoren, Udalak urtebeteko luzapena adostu dezake, edo kontratua bertan behera utzi. Halaber, esleipendunak ere eskatu ahal izango du bertan behera uztea lehen urtebeteko epea amaitzean. Kontratua epealdi horretan bertan behera uzteko asmoa gutxienez epemuga amaitu baino BI hilabete lehenago agertu beharko du dagokion aldeak, idatziz.

Lehenengo urtebeteko epealdia amaituta jarraitzea erabakiko balitz, bi aldeek hala adostuta, URTE BATEKO epeetan luzatu ahal izango da kontratua, eta inolaz ere ezingo du gainditu LAU URTEko epea, haserako epealdia barne dela.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Esleipendunak bere kontura eta bere arriskupean ustiatuko ditu lagatako instalazioak, eta Udalak ez du inolako kontraprestaziorik ordaindu beharrik izango proposatutako jarduerengatik.

Esleipendunak hilero 200 euroko kopurua (BEZa aparte) ordaindu beharko dio Udalari alokairu gisa, hil bakoitzaren lehen 5 eguneko epean. Kopuru hau urte naturaleko hasieran eguneratuko da aurreko urteko KPI edo Kontsumorako Prezioen Indizearekin (Euskal Autonomia Erkidegoko indizea hartuko da erreferentzia gisa). KPIa negatiboa baldin bada, ez da kontutan hartuko eta prezioa aurreko urteko berdina izango da.

Lizitatzailleek diru-kopuru hori (udalari ordaindu beharreko kopurua) hobetu dezakete, ez delarik onartuko ezarritako kanon kopurua baino txikiagoa den eskaintzarik.

Kopuru honetaz gain, esleipendunak hilero 25 euroko kopurua ordaindu beharko dio Udalari, azken honek aretoaren zati bateko ur hornidura dela eta ordaintzen duen zatiagatik.

Ostalaritza-jardueraren tarifek ezingo dute gainditu udalerrian edota eskualdean antzeko maila eta kalifikazioko establezimendu batentzat ohikoak direnak. Ondorioz, esleipenduna herriko ostalari elkartearekin koordinatuta egongo da.

Tabernako sarrera, orokorrean, libre eta doakoa izango da, sarrera eskatzen duten ekintzarik egon ezean.

4. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea. Soilik KPIari buruzko eguneraketak onartuko dira. KPIa negatiboa baldin bada, ez da kontutan hartuko eta prezioa aurreko urteko berdina izango da.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

5. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori 12.000 eurokoa izango da.

Berme hori jartzeko epea egutegiko 10 egunekoa izango da, 21. baldintzan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik EZ badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

6. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratatari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

7. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratatistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

8. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

Esleipendunak, eskubidea izango du taberna- jatetxe ustiapenerako, inolaz ere ez du jardun hau subkontratatu edo berralokatuko udaletxearen oniritzik gabe.

Esleipendunak, egutegia zehazten den momentuan, oporraldia eskatzeko aukera izango du. Oporraldi hau ez da inolaz herriko jaiekin batera izango. Oporraldian, udalak edozein ekintza burutu nahiko balu, eskubidea luke aretora sartu eta ostalaritza jardunarekin zerikusirik ez duen eremuak erabiltzeko.

Esleipendunak honakoak ordaindu beharko ditu:

1. Kontratua prestatzeak eta formalizatzeko eragindako gastuak (iragarkiak, GAO on argitaratzea eta eskriturak bere kasuan)
2. Gasa, ura eta argindarraren hornidurari dagozkion gastuak (baita kontrataturiko potentzia elektrikoaren gastuaren erdia), bai eta estolderia eta hondakinen tasari dagozkionak ere.
3. Mantentze lanek (galdara, serconten, alarma...) funtzionamendu egokirako konponketek, garbiketak eta kontserbazio lanek eragindako gastuak.
4. Garbiketa produktuak
5. Bere gain hartutako jardueren SGAE kostuak (barrako musika, ekitaldietakoa....)

8.1.- Ustiapenaren edukia eta kudeaketa.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, Zerbitzu Publiko honek bere baitan hartzen duen jarduera burutzen duen bitartean, zerbitzu hori kudeatzeko ahalmenak izango ditu bere gain, jabetza eskubidearen eta hirugarrenen kalterik gabe, baina zerbitzua emateko babes administratiboa izateko eta Udalak eskuordetutako polizia ahalmenak erabili ahal izateko eskubidearekin.

Esleipendunak bere gain hartu behar ditu lan hauek:

- Kontratuan sartuta dauden instalazioen garbiketa: ESPALDIA KAFE ANTZOKIA OSORIK
- Garbiketarako materialen gastuak ordaintzea, bai eta komunetan behar direnak ere.
- Eraikinean egindako jardueren ondorioz kanpoko aldean zikindu diren espazio guztiak garbitzea.
- Utzi zaizkion instalazio guztiak egoera onean gordetzea. Bere kontura izango dira utzitako elementuen matxurak konpontzea eta haien ordezkioak jartzea.
- Jarduerak egiteko beharrezkoak diren altzariak jarri eta lekuz aldatzea. Baita, jarduera aurrera ateratzeko behar diren argi, aparailu elektronikoak, e.a-ak martxan jartzea.
- Ateak ireki eta ixtea.
- Alarmaren ikuskapena, kontrola eta mantenu gastuak.
- Baimendutako erabileretan instalazioak erabiltzeko eta jarduerak burutzeko beharrezko diren material eta baliabideak erabiltzeko prest jartzea.
- Gunearen barruan kokatutako interpretazio zentroaren barne-argiztapenerako sistemaren erabilera eta zerbitzurako prest jartzea. Batik bat, han egingo diren jardueri zerbitzua zuzen emateko. Gune horren garbiketa eta hango materialak saltzea.
- Ostalaritza zerbitzua ematea.
- Ingurumenaren zaintzarako irizpideak zehaztea, hondakinen sorrera murriztuz eta hondakinen kudeaketa egokia eginez; hondakinak sailka batuko dira eta egoki birziklatu.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- Kontratuaren exekuzioan erabiltzen duen pertsonalarekiko, lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta higiene kontuetan indarrean dauden lege ezarpenak betetzea. Era berean, egiten dituen kontratazioen berri emango du hilero, dagokion TCak aurkeztuz. Horiek ez aurkeztea, kontratuaren suntsipenerako arrazoi izan daiteke, Udalak hala erabakiz gero.
- Zerbitzuaren ordutegiari buruz berri ematen duten kartelak jarriko ditu esleipendunak establezimenduaren ageriko tokietan. Baita tabernako jaki eta edarien prezioen zerrenda bat ere.
- Ostalaritza zerbitzua beronek eskatutako osasun eta higiene baldintzetan ematea, langile oro derrigortuta egonik jakien manipulaziorako eskatutako karneta izatera.
- Esleipendunak zerbitzu honetan bere gain dituen langileen dokumentazio laborala eman beharko dio udalari.
- Erreklamazio orriak eskatzen duen ororen esku utzi beharko ditu.
- Oro har, ikuskizunetan, atak ireki eta ixteaz, sarbideak zaintzeaz, argiak piztu eta emendatzeaz, berogailua martxan jarri eta erregulatzeaz, konpainiari oinarrizko laguntza emateaz, aulkiak jartzeaz eta aurrez sarrerak saltzeaz arduratuko da esleipenduna. Formatu txikietan, eskenatokian mahaia montatzeaz, proiektorea martxan jartzeaz eta soinu ekipoa martxan jartzeaz ere arduratuko da.
- Edozein istripu gertatuz gero, esleipendunaren lana izango da udala jakinaren gainean jartzea lehenbailehen.
- Esleipendunaren gain doazen jardueretan aforua errespetatzea.
- Elgeta herri euskalduna izanda, publikoki lanean daudenak euskaraz komunikatzeko gaitasuna izango dute. Ez betetzearen kasuan, kontratuaren alde bateko resoluzio kausa izan daiteke, udalak hala erabakiko balu. Esleipendunak zerbitzua emateko orduan euskara lehenetsiko du. Guneko idatzizko elementuak eta kultur jardueren ondorioz sortzen direnak (kartelak, sarrerak...) euskaraz egongo dira.
- Ekitaldiak horrela eskatzen duenean (intimitate berezia eskatzen duen formatuaren kasuan), antolatzaileak eskubidea izango du ekitaldia hastez bat



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

barra zerbitzua itxita mantendu dadin eskatzeko, aurrez esleipendunari horrela azaldu eta eskatuta. Itxita mantentzeko betebeharra ekitaldia hasten den unetik amaitzen den artekoa da. Barra zabalik mantendu arren isiltasuna eta errespetua eskatzearekin konpondu badaiteke arazoa, horrela egitea lehenetsiko da. Eskaera hau esleipendunak egin beharko du, errespetuz.

- Kontratuaren baitan sartzen da aldameneko terraza erabiltzeko baimena, beti ere ustiapenaren mesedetan bada. Terraza horretan mahaiak eta aulkiak jarri ahal izango dira, baina ezin izango da izaera iraunkorra duen elementu finkorik jarri, ezta ere bere itxura edo konfigurazioa aldatu. Horiek horrela, aipatutako gunean terraza zerbitzua eskaini ahal izango da, ekitaldiak gauzatzeko oztopo ez den momentuetan. Terraza garbi mantentzea esleipendunaren lana izango da, terrazaren erabileratik eratorritako zikinkeria garbituz.
- Debekatuta dago kaxa, mahai, jaki, edari, traste e.a-ak espazio irekitan pilatzea. Beti gordeko dira horretarako prestatuta dagoen biltegian.

8.2.- Instalazioak irekita egoteko orduak.

Gunea zabalik egongo da:

- a) Gutxienez bariku, zapatu, domeka, jai egun eta jai bezperatan. Irekiera ordua gutxienez goizeko 10:00etatik aurrera izango da, eta ezin izango da egunotan 22:00ak baino lehen itxi.
- b) Udalak eskatutako egun eta orduan interpretazio zentrorako bisita dagoelako, Udalak gutxienez 24 ordu lehenago egin beharko du eskaera.
- c) Udalak eskatuta gunean egin behar duen jardueraren baterako (aurkezpenak, bertan dauden materialak sartu/ateratzea, ekintza ezberdinak...) Udalak gutxienez 24 ordu baino lehenago egin beharko du eskaera.
- d) Herrian antolatzen diren eta egutegia osatzean zehaztuak izango diren jaietan: gabonak, inauteriak, euskararen eguna, herriko jaiak... Baita interes orokorreko beste edozein ekitaldi antolatzen denean ere.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Hiruhileko bakoitzaren haserarako agenda bateratu bat erabakiko da Kultura Batzordean, Udalak, herriko elkarte edo norbanakoek eta esleipendunak proposatutako jarduerekin.

Ostalaritza jarduerak Joku eta Ikuskizunen arloan indarrean den araudian zehaztua dagoen ordutegia bete beharko du, Udalak horren gainean espresuki besterik esan ezean.

Udalak aukera izango du gunean bere ekintzak antolatzeko. Urtean antolatzen dituen 20 ekintzetan sortzen diren gastuak (argiteria kontsumoa, garbiketa) esleipendunaren kargu izango direlarik. Herriko elkarte eta norbanakoek aukera izango dute gunea erabiltzeko eskaera egiteko udaletxean, baita zuzenean esleipedunarekin euren ekintzak egitea adosteko ere. Ekintza hauetan ez dira sartzen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio zentruaren bisitekin lotutako ekintzak.

8.3.- Ikuskizunetako sarrerak.

Esleipendunak erabakiko du berak antolatutako ekintzen sarreren prezioa. Udalak antolatutako ekintzetan Udalak berak erabakiko du.

Espaloia Kafe Antzokian antolatzen diren ikuskizun guztietan Goibeko euskaltzaleen topaguneko bazkideek sarrera %20 merkeagoa izango dute. Horretarako elkarteko bazkide txartela aurkeztu beharko dute.

8.4.- Betebehar laboral eta sozialak.

Bere enpresa-jarduera garatzeko beharrezko diren langileak izan beharko ditu esleipendunak.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Esleipendunak enpresari erabat autonomo eta independentearen izaera izango du, eta erantzukizun oso-osoa duena bai Udalaren bai Gizarte Segurantzaren aurrean, eta Zerga-Administrazioaren aurrean.

Horrez gain, bere enpresa-jarduera burutzeko kontratatuko lituzkeen langileen lan-harremanetatik edota beste edozein motatakotik sortutako beste edozein betebeharren erantzule ere izango da, eta horrela edozein motatako soldata, ordainsari, aseguru, subsidio, bai eta gizarte arloko jurisdikzio-organoen aurrean egindako erreklamazioez ere, eta inolaz ere ezingo da ulertu inolako erlaziorik dagoenik langile horien eta Udalaren artean, eta enpresa horren kontratua amaitzen denean ez da subrogatuko enpresariaren betebeharretan.

Enpresaria behartua dago lan arloan indarrean diren xedapenak betetzera, bai eta Gizarte Segurantzaren, Laneko Arriskuen Prebentzioaren, eta dagokigun egoera honetan ezargarri den beste edozein ere, eta bere zerga-betebeharretan egunera egon beharko du. Udalari frogatu beharko dio, eskatzen zaion guztian, aipatutako zerga- eta lan-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.

8.5.- Erantzukizun-aseguruak.

Espaloia Kafe Antzokiaren esleipendunak erantzukizun osoa hartuko du bere gain Udalarekiko eta hirugarrenekiko. Horretarako, erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko du ustiapena eta patronalekoa (kultur eta ostalaritza bi kasuetan) eta lokatiboa eta dagozkion primak bere garaian ordaindu, eta Udalari aurkeztu beharko dizkio, hala eskatzen zaionean, bai poliza, bai hura ordaindu izana egiaztatzen duen erreziboa.

Nolanahi ere, erantzukizun zibilerako gutxieneko zenbatekoa 610.000 €koa izango da.

8.6.- Espazioen banaketa.

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 elgeta@udal.gipuzkoa.net
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Esleipendunak instalazioen espazioen gaur eguneko banaketa aldatu dezake. Horretarako baimena Udalak eman beharko dio. Halaber, ezingo du inolako obra edo hobekuntza estetikorik egin udalaren baimenarekin ez bada.

8.7.- Besteri lagatzearen debekua.

Debekatua dago, eta eraginik gabea izango da, kontratu honen pean dauden lokalen kudeaketa eta ustiapena beste bati lagatzea, beste bati errentatzea, edota osorik edo zati batean eskualdatzea, Udalak idatziz horretarako baimenik eman ezean.

8.8.- Erretzea debekatuta.

Areto osoan ezingo da erre.

8.9.- Erreklamazio-orriak.

Esleipendunak erreklamazio liburua edota orriak izan beharko ditu, indarrean den legeriaren arabera.

8.10.- Ikuskaritza eskubidea.

Udalak, eskubidea izango du irizten duen momentuan ikuskaritza bat eskatzeko. Eskatzen den unetik gehienez 24 ordura izango du udal teknikariak antzokia ikuskatzera joateko eskubidea (kamerinoak, sukaldea, komunak, jangela, aretoa bera....).

9. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratastaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Baterautaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

10. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLTBaren 107 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratastarentzat.

11. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren iraupena amaitzen denean, eta gehienez, 10 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da, hemen: Elgetako Udalean. Horretarako, esleipenduna izan denak ESPALOIA KAFE ANTZOKIKO eraikinaren giltzak itzuli beharko ditu.

Kontratu-mota honen izaera dela eta, ez da berme-eperik jarri behar.

12. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA.

Kontratastak, bere erruagatik, kontratua aurrera eramateko funtsezko izaera duten ekintzak ez baditu betetzen, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta zerbitzua ez emateagatik sortu dituen kalteen arabera berme kopurua bereganatzea, edo zerbitzua egoki eman arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 3 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA.

Kontratistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 20. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

13. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 286. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Udalari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

15. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

1. **Alokairua.** (20 puntu arte) Aplikazio formula: puntuazio altuena eskaintza haundienari. Hobekuntzarik ez 0 puntu. Besteen ponderazioa honela: puntuazioa = gehienezko puntuazio x eskaintza % eskaintza handiena.
2. **Ikasketa eta esperientzia.** (35 puntu arte) 1-8 puntu, urte bat baino gutxiago. 9-16 urte bat baino gehiago. 17-35 esperientzia luzea eta ardua karguak. (egiaztatu beharrekoak)
3. **Hobekuntzak.** (30 puntu arte) Egutegia eta ordutegia zabaltzea, zerbitzua antolatzeko modua, hobekuntzetarako inbertsioak, proposatutako tarifak, bertako produktuen erabiltzea
4. **Kultur arloa.** (15 puntu arte) Kultura batzordeko kide aktibo izateko eta jarduera kulturalak bere gain antolatzeko konpromisua.

Berdinketa kasuan bestelako hobekuntzak eta euskararen ezagutza hartuko dira kontuan.

Aurkeztutako eskaintzak ebaluatzeko Batzorde bat sortuko da.

Kontratazio Mahaia dokumentazio ireki aurretik bere izendapena Kontratazio profilean argitaratuko da.

Denbora nahikoarekin lizitatzailerei jakinaraziko zaie dokumentazioa noiz irekiko den data.

16. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Alkatea, edo bere ordezkaritza emango dion zinegotzia.

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 elgeta@udal.gipuzkoa.net
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- Batzordekideak: Udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.
- Mahaiko idazkaria: Idazkari-kontuhartzailea.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatze debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak 20.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako idazkaritza-kontuhartzaitza. ORDUAK: 9:30 - 13:30. EPEA: egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, 30 laneguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen argitaratuko da, eta honako atari informatiko edo webgunean ere eskuratu ahal izango da: www.elgeta.eus.

Gune berean, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria ere eskuratu ahal izango da.

Lizitatuzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLTBaren 158.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lizitatuzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)
943 76 80 22 elgeta@udal.gipuzkoa.net
www.elgeta.eus



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Lizitatzailleek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztuko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: “ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAREN KUDEAKETA ETA USTIAPENA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA”.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea aurkeztuko da eta erakunde honek askietsiko du kartazal horretan aurkeztutako agirien sailkapen-prozesuan.

b) Lizitatzaillea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzaillearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Bestelako enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza hartzen duen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoaren txostenaren bidez frogatuko da.

c) Eskaintzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lizitatzaillearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 75. artikuluko a) eta c) letran eta 78. artikuluko a), b), e) eta h) letran ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

h) Prozedura horren ondorioz sortzen diren jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa, SPKLTBaren 151.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Lizitatzailen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLTBaren 84. artikulua xedatutakoaren arabera. Aipatu ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzailaren ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

“B” kartazalaren azpitulua hau izango da: “AGIRI TEKNIKOAK ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK”. Bertan, baldintza-agiri honen 15. klausulan adierazitako balio-judizio baten menpe dauden irizpideei buruzko agiriak jasoko dira.

Besteak beste, honako hauek sartu beharko dira:

1.- Esleipendunak Espaloia Kafe Antzokian eta horren eranskin diren instalazioetan egingo dituen jardueren oroitidazki edo memoria orokorra, aipatutako arloetako bakoitza adieraziz, baloratu ahal izateko.

2.- Hobekuntzak.

Zerbitzua ematerakoan hobekuntza edota kontratuaren helburuaren osagarri izan daitezkeen proposamenak.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

“C” kartazalaren azpitulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

I. Eranskinean xedatutako ereduaren arabeko diru-proposamena.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu. Aipatu agiriak fotokopia hutsean ere aurkez daitezke baina, kasu horretan, lehen sailkatuak fotokopia horiek benetakoak direla erakutsiko du jatorrizkoak emanez.

(25. jarraibidea)

20. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. "A" KARTAZALA IREKI ETA BERTAN DAUDEN AGIRIAK PROZESATZEA

Mahaiak "A" kartazalean dauden agiriak sailkatuko ditu. Horretarako, lizitatzaileren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibideak edo agiri osagarriak eska daitezke. Mahaiak, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 22. artikuluan adierazten den eran jardungo du, bost egun naturaleko epean. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean eta kontratatzailearen profilean. Era berean, lizitatzailerek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lizitatzailerei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die, aipatutako Araudiko 81. artikuluan, akatsak zuzen ditzaten.

2. ENPRESAK AUKERATZEA

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, baldintza-agiri honen 19. baldintzako e) letran azaltzen diren irizpideak zein enpresak



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

3. "B" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten arabera irizpideen baitan, publikoki irekiko da. Ekitaldi hori lizitatzailerik behar bezala adierazitako egun eta orduan egingo da. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako, SPKLTBaren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irizpide horiek balioesteko epea HIRU HILABETEkoa izango da, irekiera-ekitaldia egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

4. "C" KARTAZALA PUBLIKOKI IREKITZEA

"B" kartazalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" kartazala irekiko da publikoki kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, sei egun balioduneko epea emango du horretarako.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizio baten menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

5. ESKAINTZAK SAILKATZEA.

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

SPKLTBaren 152. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean lizitatzailari (edo lizitatzaileri, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzailak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

6. ERREKERIMENDUA, HALA BADAGOKIO, LEHEN SAILKATUARI.

Aurreko pausoak eman ostean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean, lehen sailkatuari honako ekintzak egin ditzala eskatuko zaio:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea. Ez da beharrezkoa izango agiri horiek berriz ere aurkeztea proposamenarekin batera aurkeztu baditu.
- b) Kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko agiria aurkeztea, baldintza-agiri honen 19. klausulako e) letraren arabera.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- c) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena aurkeztea, hala badagokio.
- d) Jatorrizko agiriak aurkeztea, proposamena osatzen duten kartazaletan fotokopia hutsak aurkeztu badira.
- e) Arrisku profesionaletarako aseguru bat badenaren egiaztagiria, 610.000 €ko zenbatekoarekin.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailerak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailerari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailerari egingo dio esleipena.

Esleipena BI HILABETEko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatzailer guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezingo den 15 egun baliodun baino gehiagokoa izan, esleipendunak honakoak egingo ditu:

- a) Administrazio honen bulegoetara etortzea, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea. Gastu horien zenbatekoa 400 € izango da, gehienez.

Kontratua sinatu aurretik esleipendunak eskubidea izango du inbentarioa udal teknikari batekin ikuskatu eta arazorik balego aldaketak egitea eskatzeko.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/200a Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

23. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu,



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu eta organoak erabakitakoek administrazioaren bideari amaiera emango diote, hala badagokio, SPKLTBaren 40. artikulutik 49. artikulura xedatutakoaren arabera, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozein artikuluren arabera, kontratazioaren alorrean errekurtsio berezia jartzeko aukeraren aurka egin gabe.

Elgeta, 2017ko irailaren 26a



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

I. ERANSKINA LIZITATZAILEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEK JARRAITUKO

DUTEN DIRU PROPOSAMENAREN EREDUA

Lizitatzaillearen datuak: Izen-abizenak
..... Helbidea

..... Posta kodea, NAN

zenbakia, Telefonoa Helbide

elektronikoa....., zuzenbideko eta jarduteko gaitasun osoarekin.

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-abizenak

..... Helbidea

..... Posta kodea, Telefonoa

..... NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa denaren

arabera), kontratatzeko asmoz

k dei egindako prozedura ireki bidezko kontratazioan parte hartzeko gonbita jaso

dudala, hona hemen nire ADIERAZPENA:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €,

gehi €, azken kopuru hori BEZaren %ari dagokiona. Prezioaren

barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo

ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

.....

2) Arau teknikoen agiria, administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratu hau arautu

behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta

ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak

eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko aren(a)

Izenpea

Mendizaleen plaza, 1. 20690, Elgeta (Gipuzkoa)

943 76 80 22 elgeta@udal.gipuzkoa.net

www.elgeta.eus